



AEROBIKA 2017

ARAUDIA

Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoa eta Kirolaren Zuzendaritzak, Euskadiko Gimnastika Federazioarekin batera, 2017ko maiatzaren 27an Euskadiko XXXVI. Eskolarteko Kirol Jokoak antolatuko ditu Gasteizko Abetxuko Udal Kiroldegian (Araba), ondorengo araudiaren arabera:

1. ADINAK ETA KATEGORIAK

- 2003-2004 urte bitartean jaioetakoak infantil, eta 2005-2006 urte bitartekoak alebinak.

2. TXAPELKETA MOTA

- 4 – 8 kidez osatutako taldeak (mistoak edo ez)
- Bikoteak (mistoak edo ez)
- Banakoak

Oharra Gimnastek bi modalitatetan soilik parte hartu ahal izango dute.

- Konpetizio gunea: 10x10 metrotako azalera lisoa talde eta hirukoteentzat, eta 7x7 metrotakoa banakako eta bikoteentzat, konpetizio azalera marrazten duen 5 zm-ko zabalerako marra batez inguratuak.
- Ariketen iraupena minutu bat eta 30 segundukoa izango da, puntuaketa mailaren arabera izango da. Ariketa osoa musikarekin egin behar da.
- Janzkera FIG kodearen araberrakoa izango da (mediak ez dira beharrezkoak izango)
- Zapatilak txuriak izan beharko dira.
- Euskadiko Txapelketarako kategoria bakoitzeko lehenengo 6 taldeak klasifikatuko dira, binaka, hirukote eta taldeen artean banatuak.
- Gimnasta bakoitzaren entrenatzaileak musika cd bat eraman beharko du, bertan erabilitako musika aurkeztutakoarena baino beste formatu batean izan beharko du erreprodukzioarekin arazoak ekiditeko.

3. KIROL SARIAK

Ondorengo kirol sari hauek egongo dira:

- 5-12 kideetako taldeak:
Saria sailkatutako 1go, 2. eta 3. taldeei emango zaie.
- Hirukoteak:
Saria sailkatutako 1go, 2. eta 3. hirukoteei emango zaie.
- Binaka:
Saria sailkatutako 1go, 2. eta 3. bikoteei emango zaie.
- Banaka:
Saria sailkatutako 1go, 2. eta 3.ei emango zaie.

4. EDOZEIN EZUSTEKOREN AURREAN

Lesio edo ezbeharrik sortu ezkeror nahi eta nahi ez antolakuntzak kirol eremuan izango duen arduradunarengana jo beharko da. Honek eman beharreko gainontzeko pausuak bideratuko ditu.

5. AZKEN OHARRA

Araudi honetan jasotzen ez diren kasuak Euskal Federazioaren lehiaketa-batzordeak erabakiko ditu eta bere erabakiak apelaezinak izango dira.

Araudi honetan jasotzen ez diren gaietan hauei jarraituko zaie:

- a) 14/ 1998 LEGEA, Ekainaren 11koa, Euskadiko kirolarena.
- b) 125/2008 DEKRETUA, Uztailaren 1ekoa, Eskola Kirolarena.
- c) 391/2013 DEKRETUA, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketen diziplina-araubideari buruzkoa
- d) Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailburuaren 2017ko urtarrilaren 10eko AGINDUA, 2017ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXXVI. edizioaren deialdia egiteko dena
- e) Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Kirol Zuzendariak, 2017ko otsailaren 2ko EBAZPENA, 2017ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXXVI. edizioaren epaile bakarra izendatzen dena.
- f.- Euskadiko gimnastika (Aerobik) federazioaren araudiak xedatzen duenari.

Euskara eta gaztelaniazko araudien interpretazioetan ezberdintasunak izan ezkeror, jatorrizko hizkuntza lehentasuna izango du.